

Bilbon, 2015.eko ekainaren 2an

Baigorriko parrokiako eta Baionako elizbarrutiko adiskideoi, agur!

Emil Larre apaiz onaren heriotzaren berri jaso ondoren, gure gotzainaren eta elizbarrutiaren izenean dolumina agertu nahi dizuet. Gaur arratsaldean izango den hiletara joaterik ez badugu ere, otoitzean bat izan nahi dugu zuekin.

Ezaguna eta maitatua izan da Emil gure artean. Loiolako Gogoeta Asteetan agurtzeko aukera izan dut behin baino gehiagotan. Ebanjelioaren poza eta itxaropena transmititzen zekien.

Elizbarrutien arteko lankidetzan lankide izan dugu urte askotan. Horregatik, gure esker ona agertu behar dut. Horrez gainera, gogoan dut, oraindik apezgai ginelarik, Aiherrara igandez egindako bisita batean nola sentitu genituen euskara eta liturgia hain hertsu eta sakon uztarturik. Emil zen harmonia horren eragilea eta zerbitzaria.

Artzain on baten galeraren penaz, baina baita bere bizitza oparoaren esker onez ere agurtzen zaituztet bihotz bihotzez Bilbotik.

Angel M. Unzueta
Bikario Nagusia